



ZESTOAKO UDALA

AKTA

2018ko abenduaren 20an Udal Batzarrak buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Alkatea eta zortzi korporakide bildu dira; gainontzeko bi zinegotzik, beraien ezinetorria adierazi dute.

Ondorengo akordioak hartu dituzte:

1.- 2018ko urriaren 25eko udal batzarreko akta onartzea.

2.- 2018ko plantila organikoa eta lanpostuen zerrendaren aldaketako hasierako erabakiaren jendaurreko epean aurkezturiko alegazioen erantzuna.

Alkateak adierazi du, Zestoako Udalak 2018ko urriaren 25an Plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda aldatzeko hasierako erabakia hartu zuela.

Jendaurreko epean M.L.k alegazioa aurkeztu zuela eta bertan eskara batzuk egin zituela.

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten bederatzi korporakideetatik aho bateko botoekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

Lehena.- Eskatutako dokumentazioa itzultzeko errekeritzea, jakinarazpenetarako emandako helbidera helaraziaz eta 15 laneguneko epe berri bat ematea, alegazioak aurkeztu ahal izateko, 2018ko urriaren 25ean udal batzar honek onarturiko 2018ko plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda aldatzeko hasierako erabakiari.

Bigarrena.- M.Z.L. andreari gogoraraztea, espedientea Zestoako Udal honetako idazkaritzan aztertu dezakeela.

Hirugarrena.- M.L.Z. andreari gogoraraztea, aztertzen ari den gaiari buruzko dokumentu eta informazio guztia momentu guztian bere eskura izan duela, disposizio hori momentu guztian berari jakinarazi zaiolarik, eta beraz, ez da egia informazio eskuratzerik ez duela izan. Gainera, pertsona hau Zestoako Udaleko kide da, eta ondorioz, orain formalki eskatzen duena, bere esku du informazio hau eskuratzea, hainbat bileretan egin duen moduan, langile moduan.

3.- EGUNEKO ZENTROA ETA ETA ETXEBIZITZA TUTELATUEI BURUZKO SAN JUAN EGOITZA ETA ZESTOAO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA

Alkateak adierazi du, Eguneko Zentroa eta Etxebizitza tutelatuei buruzko San Juan Egoitza eta Zestoako Udalaren arteko hitzarmena 2017an sinatu zela. Hitzarmena aldatzea beharrezkoa jo dela dio, besteak beste, aste buruetako plazak 6tik 10era pasa direlako, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu ondoren. Bestalde, baldintza ekonomikoak zehazteko hitzarmenari eranskin bat atxikitu zaiola gaineratu du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baldintza egokituaz.

Gaia Ongizate Batzordeak aztertu duela adierazi du eta ontzat eman.



ZESTOAKO UDALA Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten bederatzi korporakideetatik aho bateko botoekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

Lehena.- Eguneko Zentroa eta Etxebizitza tutelatuei buruzko San Juan Egoitza eta Zestoako Udalaren arteko hitzarmenaren aldaketa eta eranskina onartzea.

Bigarrena.- Alkatea ahalbidetzea hitzarmenaren aldaketa sinatu eta beharrezko tramiteak egiteko.

4.- 2016/2 ESPEDIENTE ZENBAKIA DUENAK, ZESTOAKO UDALARI AURKEZTURIKO ERANTZUNKIZUN PATRIMONIALEKO ERREKLAMAZIOAREN EBAZPENEA.

Alkateak adierazi du, 2016/2 erreklamazio patrimonialeko espedientean, M.S.A-ek 2016ko urriaren 12an, Zestoako Toribio Alzaga kalearen 2 zenbakiaren parean, Gisasola Egoitzaren sarrera aldera izandako erorketa baten ondorioz jasandako lesio eta kalteengatik aurkeztu zuela eta udal zerbitzuen funtzionamenduaren ondorioz gertatu zela jasotzen zela. Erreklamazioaren zenbatekoa 28.909,25 eurokoa izan zela gehitu du.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jaso dela gehitu du eta bertan Zestoako Udalaren erantzunkizun patrimonialik ez dagoela irizten dio.

Instruktorearen proposamena eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena ikusirik Udal Batzar honi MSA-ak aurkezturiko erreklamazio patrimonialeko erreklamazioa ez onartzea proposatzen dio.

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten bederatzi korporakideetatik aho bateko botoekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

Lehena.- 2016/2 erreklamazio patrimonialeko espedientean, M.S.A-ek 2016ko urriaren 12an Zestoako Toribio Alzaga kalearen 2 zenbakiaren parean Gisasola Egoitzaren sarrera aldera izandako erorketa baten ondorioz jasandako lesio eta kalteengatik aurkeztu zena, 28.909,25 euroko zenbatekoagatik ez onartzea.

Bigarrena.- Interesatuari jakinaraztea.

5.- ZESTOAKO UDALAREN HIZKUNTZEN ERABILERA-PLANA

Alkateak adierazi du Zestoako Udalaren hizkuntzen erabilera-plana, 2018ko urriaren 25an egin zen kultura batzordean aztertu eta ontzat emateko irizpena eman zuela.

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten bederatzi korporakideetatik aho bateko botoekin, honako erabakia hartu du:

Zestoako Udalaren hizkuntzen erabilera-plana onartzea, beronek ondorengo edukia ditu:

- 2018-2022 plangintzaldirako helburuak
- 2018ko erabilera plana

6.-ERREGU ETA GALDERAK.

M.A.k adierazi du, Udal Batzarrak duten maiztasuna kontuan izanik eta tramiteko bilerak bihurtzen direla ikusirik, esku artean udalak dituen gai garrantzitsuak batzorde

informatiboetan aztertzeaz gain, beharrezkoa dela deritzo Udal Batzarrean ere aztertzea.

A. A.k gehitu du, era horretan, herritarrei zabaltzen zaiela gaien azterketa.

Eta beste gairik ez dagoenez, 20:15ak direnean amaitutzat eman da Udal Batzarra.

Ander Cestona Unanue

Idazkaria,

O.e

Alkateak,